



**UDALBATZARRAK 2010EKO IRAILAREN 24AN
EGINIKO OHIKO BILKURARI DAGOKION AKTA**

**ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA DE PLENO DE
LA CORPORACION CELEBRADA EL DIA 24 DE
SEPTIEMBRE DE 2010**

Errenteriako Udalaren bilkura-aretoan, bi mila hamarreko irailaren hogetita lauko goizeko 08:35 zirela, lehenengo deialdian eta Juan Carlos MERINO GONZALEZ alkate jaunaren esanetara, ondoko zinegotziak elkartu dira:

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 08:35 horas del día veinticuatro de septiembre del año dos mil diez, se reúnen en primera convocatoria, bajo la Presidencia del Alcalde Don Juan Carlos MERINO GONZÁLEZ, los siguientes Concejales:

- Joaquin ACOSTA PACHECO
- M^a del Mar CARRILLO GASCON
- Silvia ASTORGA MARTINEZ
- Joseba ECHARTE MARTIN
- Jose Angel RODRÍGUEZ MEDINA
- Mikel DURAN GONZALO
- Luis Ignacio ANDRES JIMENEZ
- Juan Carlos MURUA ROMA
- Itsasne ALVAREZ DE EULATE LASA
- Luis Santiago ANGULO MARTIN
- Agustina Ana CANO CEREIJO
- Iñaki QUERALT COIRA
- Gorka MAUDES MIGELTORENA
- Maite PEÑA LOPEZ
- Venancio GRAVINA ESNAL
- Jose Manuel FERRADAS FREIJO
- Jose LEGORBURU AYESTARAN
- Lucia PERALTA RODRIGUEZ
- M^a Angeles BASTOS FERNANDEZ
- Joxe BURGOS VIÑARAS

- Joaquín ACOSTA PACHECO
- M^a del Mar CARRILLO GASCÓN
- Silvia ASTORGA MARTÍNEZ
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- José Ángel RODRÍGUEZ MEDINA
- Mikel DURÁN GONZALO
- Luis Ignacio ANDRÉS JIMENEZ
- Juan Carlos MURUA ROMA
- Itsasne ALVAREZ DE EULATE LASA
- Luis Santiago ANGULO MARTÍN
- Agustina Ana CANO CEREIJO
- Iñaki QUERALT COIRA
- Gorka MAUDES MIGUELTORENA
- Maite PEÑA LÓPEZ
- Venancio GRAVINA ESNAL
- José Manuel FERRADÁS FREIJO
- José LEGORBURU AYESTARAN
- Lucía PERALTA RODRIGUEZ
- M^a Ángeles BASTOS FERNÁNDEZ
- Joxe BURGOS VIÑARAS

Bertan dago, egintzaz fede emateko,
Francisco Javier LESCA EZPELETA idazkari jauna.

Asiste y da fe del Acto, el Secretario General
D. Fco. Javier LESCA EZPELETA.

**1. Udalbatzak 2010eko ekainaren 25ean eginiko
ohiko bilkurari dagokion aktaren irakurketa eta
onespena, bidezkoa bada.**

**1.- Lectura y aprobación, en su caso, del Acta
correspondiente a la sesión ordinaria de fecha 25
de junio de 2010.**

Idazkariak 2010eko ekainaren 25ean eginiko
ohiko bilkurari dagokion akta irakurri du.

Leída por el Secretario el Acta
correspondiente a la sesión ordinaria de fecha 25 de



junio de 2010.

Ondoren, mintzatu dira:

Se producen las siguientes intervenciones.

* Acosta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) proposatu du onartzeko banaturiko aktaren 18. orrialdean, zera esaten duen lekuan: *“Hau ez da harritzekoa, izan ere, herritarrek Eusko Jauriaritza juzgatuko dute aurrekontua exekutatu ostean lau urte pasa ondoren”*, lehenengo zatian adierazitakoak ez duelako zentzurik, eta berak esan nahi izan zuenarekin bat ez datorrelako, ondokoarekin aldatzea proposatu du: *“Ohartarazten du baliogabeko epaiak oso ondorio mugatuak izango lituzkeela”*.

* El Sr. Acosta (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) propone que en la página 18 del acta repartida para su aprobación, en la parte de su intervención que dice: *“Esto no es de extrañar procurando que estos ciudadanos hagan un presupuesto al Gobierno Vasco cuatro años después de que se haya ejecutado”*, se modifique por: *“Advierte que la sentencia de nulidad tendría efectos muy limitados”*, ya que lo expresado en primer lugar no tiene sentido, ni se ajusta a lo que en su intervención quería expresar.

* Cano andreak (atxiki gabeko zinegotziak) esan du banaturiko aktaren 55. orrialdean, Ferradas jaunak (Ezker Batua-Berdeak) eginiko lehenengo mintzaldiari erantzunez, Galdera-eskarien puntuan Alkatearen erantzuna azaltzen dela, baina ondoren Acosta jauna (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) mintzatu zen eta zera esan zuen gazteleraz: *“en cuanto a la prueba psicotécnica, es una empresa privada quien la efectúa, y el Ayuntamiento se limita a seguir sus instrucciones. Y en cuanto al tema del euskera dice que estas pruebas no están adaptadas para realizarlas en euskera”*. Erantzun hau ez dago aktan jasoa eta jaso dadin proposatu du.

* La Sra. Cano (Concejales no Adscritos) señala que en la página 55 del acta repartida, en respuesta a la primera interpelación efectuada por el Sr. Ferradás (Ezker Batua-Berdeak) en el punto de Ruegos y Preguntas, figura la respuesta del Alcalde, pero posteriormente intervino el Sr. Acosta (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) en el siguiente sentido: *“en cuanto a la prueba psicotécnica que es una empresa privada quien la efectúa. El Ayuntamiento se limita a seguir sus instrucciones, y en cuanto al tema del euskera dice que estas pruebas no están adaptadas para realizarlas en euskera”*. Esta respuesta no consta en el Acta y propone se incluya la misma.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Finalizadas las intervenciones.

2010eko ekainaren 25eko akta, proposamen-aldaketak sartuta, onartzeko bozkatu dute.

Sometida a votación el Acta correspondiente a la sesión ordinaria de fecha 25 de junio de 2010, incluidas las modificaciones propuestas.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 20 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, PP, Ezker Batua-Berdeak, atxiki gabeko zinegotziak) eta Burgos jaunaren (Alkarbide) abstentzioz, osoko

El Pleno de la Corporación, por mayoría de 20 votos a favor (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, PP, Ezker Batua-Berdeak, Concejales no Adscritos) y la abstención del Sr.



bilkura hartara etorri ez zelako,

Burgos (Alkarbide) por no haber asistido a aquel Pleno,

ERABAKIDU

- **Onartzea** 2010eko ekainaren 25eko ohiko osoko bilkurari dagokion akta.

2. Ondorengo ebazpenen berri ematea: Alkatearenak (891 zk.tik 1206 zk.ra, biek barne), Zinegotzi-ordezkariek (1174 zk.tik 1397 zk.ra, biek barne) eta Tokiko Gobernu Batzordearenak.

Alkatetzak (891 zk.tik 1206 zk.ra, biek barne), Zinegotzi-ordezkariek (1174 zk.tik 1397 zk.ra, biek barne) eta Tokiko Gobernu Batzordeak emaniko ebazpenen berri eman da.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

3. Alkatetzak 2010eko uztailaren 21ean emaniko dekretuaren berri ematea, Ingurumen Saileko arduradun Luis Ignacio Andres Jimenez zinegotzia izendatzeko.

Alkatetzak 2010eko uztailaren 21ean Luis Ignacio Andrés Jimenez zinegotzia Ingurumen Arloko delegatu izendatuz emaniko 939 zk.ko dekretuaren berri eman da.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

4. Alkatetzak 2010eko irailaren 7an emaniko dekretuaren berri ematea, Udaltzaingoa Saileko arduradun Luis Ignacio Andres Jimenez zinegotzia izendatzeko.

Alkatetzak 2010eko irailaren 7an Luis Ignacio Andrés Jimenez zinegotzia Udaltzain Arloko delegatu izendatuz emaniko 1146 zk.ko dekretuaren berri

ACUERDA

- **Aprobar** el Acta correspondiente a la sesión ordinaria de fecha 25 de junio de 2010.

2.- Cuenta de Resoluciones del Alcalde (nºs. 891 al 1206, ambos incluidos), de Concejales Delegados (nºs. 1174 al 1397, ambos incluidos) y de la Junta de Gobierno Local.

Se da cuenta de las Resoluciones del Alcalde (nºs. 891 al 1206, ambos incluidos), de Concejales Delegados (nºs. 1174 al 1397, ambos incluidos) y de la Junta de Gobierno Local.

El Pleno queda enterado.

3.- Dar cuenta del decreto de Alcaldía de fecha 21 de julio de 2010 por el que se delega el Area de Medio Ambiente en el Concejal D. Luis Ignacio Andrés Jimenez.

Se da cuenta del decreto de Alcaldía nº 939 de fecha 21 de julio de 2010 por el que se delega el Area de Medio Ambiente en el Concejal D. Luis Ignacio Andrés Jimenez.

El Pleno queda enterado.

4.- Dar cuenta del decreto de Alcaldía de fecha 7 de septiembre de 2010 por el que se delega el Area de Policía Local en el Concejal D. Luis Ignacio Andrés Jimenez.

Se da cuenta del decreto de Alcaldía nº 1146 de fecha 7 de septiembre de 2010 por el que se delega el Area de Policía Local en el Concejal D. Luis



eman da.

Ignacio Andrés Jimenez.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

El Pleno queda enterado.

5. Errenteriako Udaleko telefono finkoa eta mugikorraren zerbitzua kontratatzekeo abian jarritako prozedura uztea eta kontratazio espediente berri bat abian jartzea.

5.- Propuesta de desestimación del procedimiento incoado y nueva propuesta de contratación del “Servicio de telefonía fija y móvil del Ayuntamiento de Errenteria”.

Gaia batzorde bakar batetik pasa ez denez, aho batez, presazkoa jo ostean, ondorengo afera ikusi dute:

Previa declaración de su urgencia por unanimidad, al no haber sido dictaminado por la Comisión correspondiente, pasa a tratarse el siguiente asunto:

Errenteriako Udaleko telefono finkoa eta mugikorraren zerbitzua kontratatzekeo abian jarri zen prozedura (hainbat irizpide) dela eta,

Visto el procedimiento abierto (varios criterios) incoado para la contratación del “Servicio de telefonía fija y móvil del Ayuntamiento de Errenteria”.

EUSKALTEL, S.A.k 2010eko abuztuaren 23an birjarpen-errekurtsoa tarteratu zuen lehiaketa arautuko zuten baldintza-agirien aurka.

Visto el recurso de reposición presentado por “EUSKALTEL, S.A.”, con fecha 23 de agosto de 2010, contra los pliegos de condiciones que rigen la licitación.

Informatika eta Komunikazio Arloko arduradunak eginiko txostena ikusi dute.

Visto el informe del Responsable de Informática y Comunicaciones.

Proposamenak egiteko garaian lauk (4) egin dute, hain zuzen EUSKALTEL, S.A.k; VODAFONE, S.A.U.k; TELEFONICA DE ESPAÑA, S.A.U.k eta FRANCE TELECOM ESPAÑA, S.A.k.

Visto que en el plazo de presentación de ofertas, se han presentado cuatro (4) proposiciones correspondientes a “EUSKALTEL, S.A.”; “VODAFONE, S.A.U.”; “TELEFONICA DE ESPAÑA, S.A.U” y “FRANCE TELECOM ESPAÑA, S.A.”.

Ondoren, Lehendakartzako delegatuak eginiko proposamena ikusi dute.

Vista la propuesta del Delegado de Presidencia.

Era berean, Kontratazio eta Ondare Saileko arduradunak eginikoa.

Visto el informe del Responsable de Contratación y Patrimonio.

Halaber, Kontratazio-mahaiak 2010eko

Visto el informe favorable de la Mesa de



irailaren 20an eginikoa.

Contratación de fecha 20 de setiembre de 2010.

Eta Alkatearen proposamena ikusi ondoren.

Vista la propuesta del Alcalde-Presidente

Mintzatu dira:

Se producen las siguientes intervenciones:

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du, aurreko baldintza-agiriaren arabera EUSKALTEL kanpoan geratzen zela. Hortaz, errekurtsioan arrazoia argudiatu ostean, Informatikako teknikariak onartu du helegitea, eta horregatik geratu da aurreko prozesua. Gaur, Udalbatzatik ateratzen denarekin, gaia berriro abian jarriko da, eta, gisa horretan saihestuko da alperrik gelditua egon dadin.

* Interviene el Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) manifestando que, según los pliegos anteriores quedaba excluida la empresa Euskaltel. Ya argumentaba la razón, ha presentado un recurso que ha sido estimado por parte del técnico de informática y eso hace que se haya paralizado el proceso anterior. Hoy, con lo que salga de este Pleno, se relanza el tema y se evita que se paralice innecesariamente.

* Murua jaunak (atxiki gabeko zinegotziak) esan du gai horren berri denek izen dutela, batez ere Bozera maileen bilkuran izan zirenek. Eta denek onartu zuten presazko prozedura bidez bideratzea, haatik, kontua da —dio— txostena irakurtzerakoan konturatu direla zerbait arraroa dagoela. Izan ere, Alkateak esan du baldintza zenbait Legearen aurkakoak zirela, eta horregatik bota zela atzera prozedura hau, baina ikusten dute horretaz gain irizpide-aldaketa bat ematen dela, eta horren berri orain baino ez dutela izan. Horrek harritzen ditu eta gustatuko litzaielike zein den arrazoia jakitea.

* Interviene en euskera el Sr. Murua (Concejales no Adscritos) manifestando que todos han tenido información sobre el tema, sobre todo los que estuvieron en la comisión de Portavoces. Asimismo, todos aprobaron que se encauzara por el procedimiento de urgencia. Sin embargo, el tema es que a la hora de leer el informe se han dado cuenta de que existe algo raro, ya que según ha comentado el Alcalde algunos condicionantes eran contrarios a la Ley, motivo por el cual se deja sin efecto dicho procedimiento. No obstante, se han dado cuenta de que también se da una modificación de criterios de valoración, cosa que se han enterado ahora. Eso les extraña, y les gustaría conocer el motivo.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du espedientearekin batera doan txostenean, Informatika eta Komunikazioko teknikari arduradunak eginean zera esan da: "Euskaltel, S.A.k argitaraturiko iragarkiaren aurka aurkezturiko birjarpen errekurtsioa dela eta, proposatzen du onartzea Euskaltel, S.A.k aurkezturiko helegitea". Esaten zen gauza bakarra zera zen: "baldintza-agiriak aldatzea, Kontratu-legearen aurka doazen baldintzak kenduta eta

* El Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) responde que en el informe que acompaña al expediente, el técnico responsable de informática y comunicaciones dice que "ante el recurso de reposición presentado por Euskaltel SA contra el anuncio publicado, etc., etc., ... propongo estimar el recurso presentado por Euskaltel SA". Ahí lo único que decía era "modificar los pliegos eliminando los condicionantes que van en contra de la Ley de Contratos, modificando los criterios de



balorazio irizpideak aldatuta". Berak ulertzen duenaren arabera, balorazio-irizpide horiek ez baziren aldatzen, proposamen hori kanpoan geratuko zen, izan ere, zera esaten baitzuen: "operadore batek ez badu sare propiorik baztertua geratuko da".

* Murua jaunak (atxiki gabeko zinegotziak) esan du kontu horiek parte hartzeko baldintzak direla, besterik da, ordea, puntuak emateko garaian egiten diren balorazioak, eta hor, euren ustez, aldaketa bat egiten da. Ados, denek ados daude batzordean esan zenaz: parte hartzeko baldintza guztiak bete behar dituzte, alabaina, horrezaz gain, ba al dago balorazioetan aldaketaren bat, galdetu du. Horixe delako euren zalantza.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du berari ez diotela ezer esan. Egia da —dio— jartzen duela, baina kontua interpretatzen hasita, uste du bigarren paragrafoak lehenengoarekin lotura duela. Bere iritziz, txostenak ikusita, esaten duen gauza bakarra zera da: kendu dela Euskaltel aurkeztea eragozten zuen klausula. Horixe esan diote berari eta ez du besteren berririk. Jaso dadila —dio—, beharrezkoa izango balitz, gaur onartuko dutenarekin aldatzen duten gauza bakarra, Euskaltel enpresa Errenteriako Udaleko telefono finkoa eta mugikorra kontatatzeko lehiaketara aurkeztea eragozten zuen baldintzak ezabatu baino ez dela egin.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Udalbatzak, aho batez,

ERABAKIDU

1. **Ez onartzea** EUSKALTEL, S.A.k "Errenteriako Udaleko telefono finkoa eta mugikorra" kontratatze abian jarritako prozedura irekia (hainbat irizpide) arautzen zuten baldintza-agirien

valoración". Lo que personalmente entiende es que si no se modificaran los criterios de valoración, esa propuesta quedaba excluída, porque lo que realmente decía era que "si un operador no tiene red propia, quedaba excluído".

* El Sr. Murua (Concejales no Adscritos) señala en euskera que eso son las condiciones para tomar parte, pero otra cosa son las valoraciones que se hacen a la hora de otorgar o puntuar, y ahí parece que hay una modificación. Todos están de acuerdo en lo que ya se dijo en la Comisión, tienen que cumplir todas las condiciones para tomar parte, ahora bien, aparte de eso, ¿hay alguna modificación en las valoraciones? Esa es su duda.

* El Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) responde que a él no se le ha notificado nada en absoluto. Es cierto que lo pone, pero forzado a hacer una interpretación, tiene que creer que el segundo párrafo se refiere al primero. Vistos los informes, lo único que dicen es que esa cláusula que imposibilitaba la presentación de Euskaltel, se elimina. A él eso es lo que le han trasladado y no conoce otra cuestión. Que conste, si fuera menester, que lo único que se varía con lo que hoy aprueban es, la eliminación de esos condicionantes que impedían la presentación de la empresa Euskaltel al concurso de telefonía fija y móvil para el Ayuntamiento de Errenteria.

Finalizadas las intervenciones.

El Pleno de la Corporación, por unanimidad,

ACUERDA

1º.- INADMITIR el recurso de reposición interpuesto por "EUSKALTEL, S.A." contra los pliegos de condiciones que rigen el procedimiento abierto (varios criterios) incoado para la contratación



aurka tarteraturiko birjarpen-errekurtsoa, hain zuzen Kontratazio eta Ondare Saileko teknikariak eginiko txostenean adierazitakoari jarraiki.

2. **Bertan behera uztea** "Errenteriako Udaleko telefono finkoa eta mugikorra" kontratatze abian jarritako prozedura irekia (hainbat irizpide).

3. **Itzultzea** epe barruan aurkezturiko eskaintzak (gutunazalak ireki gabe), hala nola Udal Diruzaintzak ezarritako behin-behineko bermeak.

4. Espediente berri bat **abian jartzea** "Errenteriako Udaleko telefono finkoa eta mugikorra" kontratatze.

5. Kontratua prozedura ireki bidez **egitea** (hainbat irizpide) eta tramitatu, berriz, ohiko eran.

6. **Onartzea** kontratu-espeditzea, lehiaketa arautuko duten baldintza-agiri ekonomiko-administratiboak eta teknikoak barne.

7. Lehiaketarako deia egitea egunkari eta aldizkari ofizialetan (EBAO, EAO eta GLHAO), hain zuzen iragarki hau EBAOra bidalita **45 eguneko epean** proposamenak egin ahal izateko.

8. Gastua egiteko **baimena ematea** Udal Kontu-hartzaileak adierazi moduan.

9. Gobernu Batzarraren **esku uztea** kontratua gauzatzeko akordio oro hartzeko

del "Servicio de telefonía fija y móvil del Ayuntamiento de Errenteria", en razón a lo señalado en su informe por el Técnico de Contratación y Patrimonio.

2º.- DESISTIR del procedimiento abierto (varios criterios) incoado para la contratación del "Servicio de telefonía fija y móvil del Ayuntamiento de Errenteria".

3º.- DEVOLVER las ofertas presentadas en tiempo hábil, sin abrir los sobres que las contienen, así como las garantías provisionales constituidas en la Tesorería Municipal.

4º.- INCOAR nuevo expediente para la contratación del "Servicio de telefonía fija y móvil del Ayuntamiento de Errenteria".

5º.- DETERMINAR como forma de contratación la de procedimiento abierto (varios criterios) y forma de tramitación ordinaria.

6º.- APROBAR el expediente de contratación, incluyendo los Pliegos de Condiciones Económico-Administrativas y técnicas que han de regir la licitación.

7º.- CONVOCAR licitación, anunciándose así en los Diarios y Boletines preceptivos (DOUE, BOE y BOTHG), por un plazo de **CUARENTA Y CINCO (45) días naturales**, a contar desde el envío del anuncio al DOUE, se puedan presentar proposiciones.

8º.- AUTORIZAR el gasto correspondiente de conformidad con lo señalado por el Sr. Interventor Municipal.

9º.- DELEGAR en la Junta de Gobierno la adopción de los acuerdos necesarios para culminar



eskumena, eta Alkatearen esku kontratua sinatzeko ahalmena.

la contratación, y al Sr. Alcalde-Presidente para la firma del contrato.

Ondoren,

Seguidamente.

Mintzatu dira:

Se produce la siguiente intervención:

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du Galdera-eskarien puntua baino lehen talde politiko ezberdinek sinaturiko mozio baten berri eman nahi duela. Bertan, epai judizialen bidez lan-istriputzat jotako kasuak (hainbat langileri dagozkionak) ikertzeko batzordea bat eratzea eskatzen da. Berak Idazkari jaunari txostena egiteko eskatu zion, eta honek bezperan eman dio. Horregatik, ez du irakurtzeko ere astirik izan. Hala ere, irakurriko eta hurrengo osoko bilkurara ekarriko duela, jakinarazten du.

* Interviene el Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) manifestando que, antes del punto de Ruegos y Preguntas quiere informar que ha tenido entrada una moción firmada por distintos Grupos, en la que se solicita una Comisión de Investigación de los casos declarados mediante sentencia judicial como accidente de trabajo, correspondientes a varios trabajadores y trabajadoras. solicitó un informe al Sr. Secretario, que se lo pasó ayer, pero no ha tenido tiempo de leerlo siquiera. Lo leerá y comunica que en el próximo Pleno se traerá el punto correspondiente.

Ondoren,

Finalizada la intervención.

6. Galderak eta eskariak.

6.- Ruegos y preguntas.

* Ferradas jaunak (Ezker Batua-Berdeak) esan du H6 autobus-lineari dagokionez, Erreteriatik Ospitaletara joaten dena alegia, uste du bertan dauden gehienek jakingo dutela luze gabe kenduko dutela. Berak dioenez, autobus hauetan herriko hainbat jende joaten zen inguru hartako lantokietara edo merkatalgunetara. Hori horrela, aurtengo udan Erreterian sinadura asko bildu dira H6 linea ez kentzeko eskatuz edo horren lekuan ibilbide hori egingo lukeen beste alternatiba eskatuz. Ezker Batuak bat egiten du eskaera horrekin, eta linea hori ez kentzeko eskaera egin zuten Aldundian. Ondorioz, jakin nahi du ea Udalak bere egiten duen herri honetako hainbat biztanlek sinadura bidez

* El Sr. Ferradás (Ezker Batua-Berdeak) señala que en relación a la línea de autobuses H6 que como la mayoría de los presentes conoce, une Erretería con Hospitales, y también supone que saben que en un plazo breve de tiempo se va a suprimir. Esta línea posibilitaba que muchas vecinas y vecinos del pueblo pudieran desplazarse a sus puestos de trabajo o a las zonas comerciales del lugar. Durante este verano se han recogido en Erretería un gran número de firmas pidiendo que no se suprima la línea H6 o en su lugar se ponga una línea alternativa que cubra ese recorrido. Desde Ezker Batua comparten y de hecho presentaron en Diputación una petición para que no se suprimiera la



eskatutakoa, eta hala izanez gero, nola pentsatzen duen babestea Udalak biztanleek eginiko eskaera hori.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du, kontuan izanik herrien arteko autobus-lineak Aldundiarenak direla eta ez Udalarenak, herritarrei jakinarazi zitzaizen Aldundiak linea hori berregituratu nahi zuela. Hau da, egun Erreterian toki bat bakarrean geratzen bada, uste du, lau tokitan geratzeko eskatzen zela, baina gero autopistan barrena joateko. Ondorioz, Altza eta Garberatik ez litzateke pasako. Beraz, bada, Udalak Aldundiari esan dio, linea berri hori jarri behar badu, jartzeko, baina lehengoa mantenduz, hain zuzen jende askok erabiltzen zuelako zerbitzu hori, bai Erreteriatik Garberara joateko, hala nola hemen dendak dituen Altza inguruko jendeak. Alabaina, hau eskatu besterik ez dute egin, izan ere, ezin baitute exijitu. Gainera —dio— gauza horiek frogatzen errazak dira: linea mantendu eta lau lagun baino ez badira ibiltzen, horrek ez du merezi. Aldiz, gehiago badira, uste du bideragarria izan daitekeela.

Jarraian.

* Ferradas jaunak (Ezker Batua-Berdeak), Alkate jaunak "Diario Vasco" egunkarian, irailaren 14an argitaraturiko elkarrizketa dela eta, galdera pare bat egin edo azalpenak ematea nahi du. Lehenengo jakin nahiko luke zaborraren bosgarren ontzia jartzeko egutegiren bat ba ote dagoen.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-

línea. Su pregunta es si el Ayuntamiento asume la petición que muchos vecinos y vecinas del pueblo han firmado, y en caso de asumirla, como piensa que el Ayuntamiento puede respaldar esa petición de los vecinos.

* El Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) responde que partiendo del hecho de que las líneas interurbanas son de Diputación y no del Ayuntamiento, lo que se les comunicó es que Diputación pensaba reestructurar dicha línea. Esto es, si actualmente tiene una sola parada en Erreteria, cree recordar que hablaba de hacer cuatro paradas, pero seguir luego el trayecto por autopista, con lo cual efectivamente, las zonas de Altza y Garbera quedaban desatendidas. Lo que se le ha dicho a Diputación desde el Ayuntamiento es que si va a instalar esa nueva línea, que lo haga, pero manteniendo la existente puesto que hay mucha gente que utilizaba ese servicio tanto para ir de Erreteria a Garbera, como gente de la zona de Altza que tiene sus comercios aquí. Pero esto se ha hecho como una petición, puesto que no se puede exigir otra cosa. Además, esas cosas son fáciles de comprobar, si se mantiene la línea y van cuatro personas, la misma no merece la pena, pero si van más, puede ser factible.

Seguidamente.

* El Sr. Ferradás (Ezker Batua-Berdeak), en relación a una entrevista que el Sr. Alcalde concedió al Diario Vasco y fue publicada el día 14 de septiembre, quiere formular un par de preguntas o aclaraciones. La primera se trataría de saber si hay algún calendario municipal en relación con la implantación del quinto contenedor de basura.

* El Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-



Euskal Sozialistak) erantzun du, ziur aski jakingo duen moduan, gai horiek ez dituzte udalek markatu eta erabakitzen, San Markos Mankomunitateak baizik. Horrela, birziklatze-alorrean aurreikusten diren hobekuntza eta alternatiben inguruan —kasu honetan konpostaz hitz egiten arituko lirateke— hizketan aritu dira eta kontua Hondakinen Partzuergoan ikusi dute. Era berean, Mankomunitatean kontu hau ikusi da; bere garaian proba-pilotoa egin zuten, Amaran jarrita dagoen bosgarren edukiontzi hori eta gainontzekoak konbertsazioak baino ez dira. Egutegirik ez dute.

* Ferradas jaunak (Ezker Batua-Berdeak) esan du elkarrizketa horretan bertan Alkateak, lagunarte giroan, baieztatzen zuen haserrarazten zutela Oiartzungo herritar zenbaitek zaborra, turismoa egiten ibiliko bailiran, Erreteriarra ekartzen zutelako. Orduan, jakin nahi du ea nondik datorkion haserre hori, eta zein datu objektibo dituen modu horretan adierazteko, hau da, tabernako haserre da, edo ba al daude zaborra Oiartzundik Erreteriarra ekartzen dutela erakusten duten datu-objektiborik.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du, lehenengo eta behin ez duela uste inor legitimaturik dagoen berak egin ditzakeen deklarazioak etsaminatzeko. Hori lehenengo, esan du. Gero, bakoitzaren irizpidearen arabera erantzun beza, besteak beste, Ferradas jaunak (Ezker Batua-Berdeak) ongi aski egiten duen moduan. Hortaz, hasieran erantzutea pentsatzen bazuen ere, orain ez du egingo, gai horiek jendeak juzgatzen dituelako batek esan eta egiten duenaren arabera. Bera ez da etorriko esan edo isil ditzakeen gauzez etsaminatzera. Nahi dituzun ondorioak atera itzazu. Izan ere, galdetu al dizut nik noizbait zuk eginiko deklarazioez, galdetu dio.

* Ferradas jaunak (Ezker Batua-Berdeak) esan du nahi duenean egin diezaiokeela, ez duela

Euskal Sozialistak) responde que como seguramente ya sabe, esos temas no los marcan y deciden los municipios, sino que se hacen a través de la Mancomunidad de San Marcos. Efectivamente, dentro de las mejoras y alternativas que se contemplan en el campo del reciclaje, en este caso hablarían del compostaje, ha habido conversaciones y se ha tratado el tema en el Consorcio de Residuos. También en la Mancomunidad es un tema tratado y conocido, se hizo en su día una prueba piloto, está implantado ese quinto contenedor en Amara y el resto son conversaciones. No hay calendario.

* El Sr. Ferradás (Ezker Batua-Berdeak) señala que, en la misma entrevista, el Alcalde afirmaba de forma coloquial, que le cabreaba que parte de los vecinos de Oiartzun trajeran la basura a Erreterria, en una especie de turismo de la basura. Lo que quiere preguntar al Sr. Alcalde es de donde procede su cabreo y, en todo caso, qué datos objetivos existen para justificar esa forma coloquial de expresarse, esto es, ¿es un cabreo de barra de bar?, o, ¿hay datos objetivos que demuestran que se trae basura de Oiartzun a Erreterria?.

* El Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) responde que lo primero que diría es que no cree que nadie esté legitimado para examinarle de las declaraciones que pueda hacer. Eso es lo primero, y luego, que cada uno tenga su criterio y le responda, como bien se encarga de hacer, entre otros, el Sr. Ferradás (Ezker Batua-Berdeak). Por tanto, en un principio pensaba contestarle, pero le dirá que no, esos son temas que la gente juzga por lo que uno hace y por lo que uno dice. Él no va a venir a examinarse de las cosas que ha dicho o se ha callado, saque usted las conclusiones que quiera, ¿le pregunta acaso en algún momento sobre las declaraciones que hace?

* El Sr. Ferradás (Ezker Batua-Berdeak) responde que cuando quiera puede hacerlo, no tiene



inolako eragozpenik. Edonola ere, kontua ez da Alkate jauna etsaminatzea, baizik eta, Gipuzkoan gehien saltzen den komunikabide batean jendeari zuzendu zaiola, bere iritziz, toki jakin batean eta lagunartean esan litezken kontuekin, baina ez komunikabideetan. Hortaz, uste du datu objektiboak beharko lituzkeela, edo bestela, ez adierazi toki horretan.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du, ai ama! Nik Ferradas jaunak (Ezker Batua-Berdeak) eta beste zenbaitek egiten dituzten deklarazioei buruzko datu objektiboak eskatzen ditudanean, orduan hitz egingo dugu. Berak uste du, ez berak ez bertan dauden beste inork, ez duela egiten dituzten deklarazioei buruzko etsaminik pasa behar. Eta, berriro dio, hori ez dela lekua eta bera ez dela sartuko afera horretan. Eta, esan dion moduan, lehenengo erantzutea pentsatu du, baina orain ez egitea zuzenagoa dela iruditzen zaio.

Jarraian.

* Cano andreak (atxiki gabeko zinegotziak) esan du aurreko astean Lehendakaritza eta Barne-antolaketa Batzordean jakinarazi zela Immigrazioko teknikaria ez zela kontratatuko. Orduan, jakin nahi dute ea nork erabaki duen hori, eta, ea ez ote zuen Udalbatzak erabaki beharko.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du, kontu horrek aurrekontuarekin duela ikustekoa, eta hor, oker ez badago, ez da azaltzen Immigrazioko teknikaria. Eta jasota egongo balitz, gauzak dauden bezala egonda, hots, bertan dauden talde gehienak —denak ez esatearren— bideragarritasun-plana, etab. eskatzen ari direnez, begibistakoa den kontua jarri nahi dio

ningún inconveniente. En todo caso, no se trata de hacerle pasar ningún examen al Sr. Alcalde, sino que cuando uno se dirige a la opinión pública en un medio que, además, es el de mayor difusión en Gipuzkoa en forma escrita, entiende que expresiones de este tipo a nivel coloquial tienen su sentido y su lugar, pero en estos medios, o se tienen datos objetivos o no es el lugar de expresarlas.

* El Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) responde que, ¡madre mía! el día que él pida datos objetivos sobre las declaraciones del Sr. Ferradas (Ezker Batua-Berdeak) y de algunos más, hablarán de ello. Personalmente cree que ni él, ni nadie de los presentes, tiene por qué pasar un examen sobre lo que declara o deja de declarar. Repite que no es el foro y por lo tanto no va a entrar en ello, y como le ha dicho, había pensado conestarle, pero cree que es más correcto no hacerlo.

Seguidamente.

* La Sra. Cano (Concejales no Adscritos) dice en euskera que en la Comisión de Presidencia y Régimen Interior se comunicó que no se tenía la intención de contratar al técnico de Inmigración. Por dicho motivo desean saber quién ha tomado dicho acuerdo, y, si no tendría que adoptar ese acuerdo el Pleno de la Corporación.

* El Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) responde que esa cuestión tiene que ver con el Presupuesto, en el que, si no se equivoca, no figura la contratación de ningún Técnico de Inmigración. Y si figurara, estando como están en el momento de ajustar, del plan de viabilidad, etc., que muchos de los Grupos presentes, por no decir todos, están pidiendo, tiene que ponerle otra vez



aurrez aurre. Hau da, ezin dute aldi berean murrizketak eskatu, eta bestetik, kontratu gehiago egiteko eskaera egin. Eta, berririo dio, ez duela uste espresuki jasota dagoenik, baina hala egongo balitz, eta mozketak egin beharko balira, ba, egingo lituzkete. Horregatik, lehenengo zein eskumen dituzten, eta gero, zein baliabide dituzten begiratzen ari dira.

Ondoren.

* Angulo jaunak (atxiki gabeko zinegotziak) esan du berak han dauzkala Galtzarabordako Auzo Elkartek sarrera emandako eskabideak, hain zuzen 2008ko martxokoa, 2009ko azarokoa eta 2010eko uztailakoa. Hiruretan esaten da Auzo Elkarte horrek aseguru ordaintzen duela, eta berez Udalak itzuli beharko liokeela diru hori diru-laguntzen bidez. Azkeneko hiru urte hauetan hori ez denez egin, jakin nahi dute zergatik ematen den egoerari hori.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du, aseguru edo beste gai baterako eman bazaie auzo elkarteei edo beste edozein motatako elkarteei, diru-laguntzek ez dute sortzen inolako aurrerakin, obligazio edo antzekorik. Horregatik, urte zenbaitz afera horrentzat diru-laguntza eman bazaie eta ondoren ezinezkoa bada, ba, ez zaie eman eta kito, esan du. Ez dago bestelako esplikaziorik, gaineratu du.

Segidan,

ante la evidencia. Es decir, no pueden a la vez pedir recortes y estar pidiendo incrementos. Repite que no le consta que figure expresamente, y si así fuera y procede el recorte, habrá que recortar. Están mirando las competencias propias en primer lugar y luego los recursos existentes.

Seguidamente.

* El Sr. Angulo (Concejales no Adscritos) dice en euskera que él tiene allí las peticiones realizadas por la Asociación de Vecinos de Galtzaraborda en marzo de 2008, en noviembre de 2009 y en julio de 2010. En los tres escritos se dice que dicha Asociación de Vecinos paga el seguro correspondiente, y que el Ayuntamiento debería devolver dicha cantidad a través de las subvenciones. Como quiera que estos últimos tres años eso no ha ocurrido, desean saber por qué se da dicha situación.

* El Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) responde que si se han dado para seguros u otro tema, bien a las Asociaciones de Vecinos o a cualquier otro tipo de asociación, las subvenciones no crean precedente, obligación, ni nada que se le parezca. Por tanto, si durante algunos años se les ha podido dar una subvención por ese tema y luego no ha sido posible hacerlo, sencillamente no se les ha dado. No hay más explicación que esa.

Seguidamente.



* Murua jaunak (atxiki gabeko zinegotziak) galdetu du, eskabideak egiten jarraitzen dutelako, ea erantzun hori beraiei eman zaien. Bestalde, Bozeraiaileen bilkuran hurrengo hilaren 19an ezohiko Udalbatza egingo zela esan zen, eta horrekin batera, Udalbatza horretako gai zerrenda zein zen. Orduan, gaien garrantziaz oharturik, gustatuko litzaieke jakitea ea Udalbatza horretarako egutegi bat badagoen, hau da, noiz banatuko den dokumentazioa, zenbat bilera egingo diren, etab..

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak) erantzun du horretan ari direla, eta gauzak zehazten dituzten heinean banatuko dute dokumentazioa. Gaur gaurkoz —dio—, aurreko Bozeraiaileen Batzordean iragarri zien moduan, esan diezaiekeen gauza bakarra zera da: urriaren 19an, asteartea, ezohiko udalbatza goizeko 8etan egiteko deia egin asmoa duela. Zein izango liratekeen puntuak aurreratu zien, eta horretan ari direla, gaineratu du.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, Alkateak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 09:00 orduak zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut Erkidego Autonomoko paper ofizialean, _____zenbakitik _____ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiaztatzen dut.

* El Sr. Murua (Concejales no Adscritos) pregunta en euskara, puesto que siguen haciendo las solicitudes, si se ha dado dicha respuesta a la Asociación. Por otra parte, en la reunión de la Junta de Portavoces se dijo que el día 19 del próximo mes se iba a celebrar un Pleno extraordinario, a la vez que se comentó el orden del día. Por ello, teniendo en cuenta la importancia que poseen los temas, les gustaría saber si existe un calendario al respecto, esto es, cuándo se va repartir la documentación, cuántas reuniones se van efectuar, etc..

* El Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak) responde que, están en ello y a medida que se vaya concretando, se irá repartiendo la documentación existente. A día de hoy, como les anunció en la anterior Junta de Portavoces, lo único que puede decir es que habrá convocatoria para un Pleno Extraordinario el próximo martes 19 de octubre, a las 8 de la mañana. Los puntos ya los adelantó y están trabajando en ello.

Finalizadas las intervenciones.

Y sin más asuntos de los que tratar, el Presidente levanta la Sesión, siendo las 09:00 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente Acta en los folios números _____ al _____ del papel oficial de la Comunidad Autónoma, firmando conmigo el Alcalde. Certifico.